

«Ez zait inoiz gustatu larregiko betegarria sartzea nobeletan»

Jon Arretxe • Idazlea

Azken urteetan egindako bidaiak eta egonaldiak baliatu ditu Jon Arretxe idazleak 'Estolda jolasak' bere azken nobela beltza idazteko. Toure sasidetektibearen pertsonaia emankorra dela uste du, egungo gizartearen miseriak azaltzen laguntzen duelako batez ere.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Nalara Elola *Etzarri Aranatz*

Nobela beltzak harrapatuta dauka aspaldian Jon Arretxe idazlea (Basauri, Bizkaia, 1963). 2012an argitaratu zuen *19 kamera*, Toure pertsonaiari buruzko lehenengo nobela beltza. Haren ondotik etorri dira *612 euro*, *Hutsaren itzalak* eta oraingoz sagaren azken alea den *Estolda jolasak*. Hurrengo liburua ere aurreratu samar duela iragarri du. Adierazi duenez, luze gabe beste genero bat lantzea gustatuko litzaiokoe.

Toureri buruzko laugarren nobela kalean da. Trilogiak ez dituzula maite esan duzu askotan. Zer dela eta?

Azken aldiari trilogiak modan jarri dira, eta imitatzaile pila bat ateratu dira han eta hemen. Edozein hasten da trilogiak egiten. Beti trilogiak gora eta behera gabilta. Beharbada, Stig Larssonen liburuekin hasi zen moda hau, ez dakit. Sekulako boom-a izan zen. Horrexegatik diet mania. Toure-ren lehenengo liburuekin hasi nintzenean, saga luzea izatea nahi nuen.

Zuzenaz orduan Estolda jolasak argitaratzea obligazioa izan da?

Ez. Erdi txantxetan erdi benetan esaten dut mania. Behin pertsonaia sortuta, lehen nobela sekulako deskalabrua bazen, liburu bakarra egingo nuela argi nukan. Baina ez da horrela izan. Sinpatikoa iruditu zait jendeari. Igual Toure pertsonaia ezberdina delako, detektibe *sui generis* samarra delako. Horrek hasieratik animatu ninduen lehenengo asmo hori bete eta saga luzea izatera.

Protagonistak berak ere askorako ematen dizu.

Bai. Berari buruzko lau nobela argitaratu ditut, eta bosgarrena oso aurreratuta daukat. Egunen batean aparkatu egin beharko nuke Toure. Idatzi nahi ditut bestelako liburuak ere. Hain harrapatuta nago pertsonaiekin... Berarekin aurrera jarraitzeko gogoz nago.

Toure inperfektua da, baina, aldi berean, maitagarria.

Konturatu naiz jendeak estimu berezia diola. Batez ere, *Hutsaren itzalak* serieko hirugarren nobela argitaratutakoan ohartu nintzen.

Oso liburu gogorra da. Toure asko sufritzen du. Liburuetan nire *e-mail*-a jartzen dut, eta, horri esker, irakurleek nirekin harremanetan jartzeko aukera dute. Liburu horren ostean, asko nirekin haserretu dira, Toure gizajoari larregi sufrirazi diodalako.

Irakurleekin harreman zuzena izatea atsegin duzu, beraz?

Bai. Orain dela urte asko hasi nintzen liburuetan nire helbide elektronikoa jartzen. Iritzi fidagarriak irakurleentzat dira. Benetan pentsatzen dutena esaten dute. Ziurrenik, aurrez aurre esatea gogorragoa da. *Hutsaren itzalak* nobelan, pixka bat pasatu egin nintzen. Aurreko bi lanak gordinak ziren arren, umoretik ere asko zeukaten. Hirugarrena ere aurreko bien estilokoa egitea planteatu nuen. Liburu bakoitzak eduki behar du bere nortasun berezia. Ondorioz, tontakeriak baztertu, eta nobela beltz-beltza egitea erabaki nuen.

Protagonistak lehen pertsonan hitz egiten du. Tourek Jon Arretxeren zerbaite badu?

Ez gehiegi, egia esateko. Nik apro-

betxatu dut ezagutu dudana, hori bai. Toure afrikarra bada, Burkina Fasokoa eta Gorom-Goromekoa, ez da kasualitatea, ni han egon naizelako da. Gainera, denbora luze txoan egon naiz han. Lagunak ere badauzkat bertan. Horrez gain, Toure San Frantziskon bizi bada, Bilboko auzo hori asko gustatzen zaidalako da. Opera munduan nahastuta dago. Nik mundu hori maite dudalako da. Ezagutzen dudana mundura ekarri dut Toure.

Azkenaldian asko landu duzu nobela beltza. Nola sentitzen zara idazle gisa?

Oso gustura. Izan ere, ni idaztean beti izan naiz oso harira joatekoa. Ez zait inoiz gustatu larregiko betegarria sartzea nobeletan. Nobela beltza beti izaten da zuzena. Hasieratik harrapatu behar zaitu. Ni oso gustura sentitzen naiz horrelako liburuak irakurtzen eta idazten. Hasi, eta harrapatuta gelditu, amaitu arte. Hori da nobela beltzak lortu behar duena.

Hala ere, deskribapen zehatzak egiten dituzu.

Girotze, jakina, ezinbestekoa da.

Batzuetan, girotzen idazle batzuk galduta egiten dira. Hasten dira larregiko apaingarriekin, eta pasatu egiten dira horrekin. Larregiko filosofadak egiten dituzte. Jakina, nobelak girotu behar dira, eta oso ondo gainera. Baina eraginkorra izan behar da. Niri liburu batek inpresioa ematen didanean bi edo hiru orri kenduta ez dela ezer gertatzen, atzeraka ematen dit. Hala ere, modan daude, dirudienez, *adreibluak*. Editoreek eurek ere esaten dute liburu luzeagoak egin behar direla. Ni, aldiz, horren kontrako izan naiz beti.

Girotze horrek zuri idazle gisa lan handia eskatzen dizu?

Lana eskatzen du, baina oso lan polita eta interesgarria da. Nik neuk murgildu behar dut halako giroetan, ondo ezagutzeko eta ondo deskribatzeko. Ezin dut idatzi entzun dudana, kontatu didatena edo Interneten ikusi dudana. Azkenean, irakurlea konturatzen da horretaz, eta harrapatzen gaitu. Ez dela sinesgarria oharitzen da. Ni beti saiatzen naiz imajinatzen deskribatzen ditudan toki horietako

personek irakurtzen nautela. Orain dela lau urte, Toureren seriearekin hasi nintzenean, argi nuen denbora batez Bilboko San Frantzisko auzoan bizi behar nuela. Pisu bat utzi zidaten auzoan. Hara joan, eta pasatu nituen aste pila bat idazten, girotzen, lagunak egiten... Bertako jendeak esaten dit igartzten dela San Frantziskon egindako lana.

Arbizutik San Frantziskoko bizimoduaz idaztea zaila izango da. Noski. Arbizu oso toki egokia da poesia idazteko. Ni oso gustura bizi naiz Arbizun. Leihu batetik ikusten dut Aralar, beste leihotik ikusten dut Urbasa... Halako toki bukolikoez poesiarako aukera gehiago ematen dute. Bukolikotasun horrek poema eder bat eskatzen dizu. Nire estiloko nobelak ghettoa nobela beltzak dira, eta Arbizun halakorik egitea zaila da. **Euskal Herrian bizi direnek ezagutzen dute Bilboko Afrika txiki-ko bizimodua?**

Inolaz ere ez. Ez duzu ezer jakin nahi. Ez duzu ikusi nahi mundu hori. Lehen, beltzak Ceutako hesia saltatzen eta igerian pasatzen ziren Ceutatik Melillara. Orain, Striarrak hor itotzen... Hori da ikusten duguna. Noizean behin bidaltzen duzu diru pixka bat, GKE bateko bazkide egiten gara, eta horrela lasai gelditzen gara. Euskal Herrian baditugu halako giroak. Askotan, bizilagunak dira. Herri txikitxoetan ez da horrenbeste igartzten. Baina herri eta hiri handietan bizi bazara, jende pila bat dago oso egoera eskasetan bizitzen, oso baztertuta. San Frantzisko da hori, baina esajertuta. Euskal Herriko jendeak ez ezik, Bilboko jendeak ere ez du ezagutzen. Halako gune beltz bat ikusten du hor, eta ez da sartzen.

1991. urtean argitaratu zenuen *Hakuna Matata* zure lehen bidaia liburua. Bidaiek laguntzen dizute nobelen lanketan?

Asko laguntzen didate. Hasieran, bidaia literatura idazten nuen. Nire lehenengo bost-sei libururik bidaia literatura izan ziren. Hor kontatzen nuen bidaiekin ezagututakoa. Orain, aldiz, egoera aldatu egin da. Izan ere, hangero jendea hemen, gure artean dago. Hemen, etxe ondoan daude gure Afrika edo Hego Amerika txikiak. Jende hori handik dator, eta oraindik hangero pentsaera eta ohi-turekin. Nik errazago ulertzen ditut, beren herrietan ezagutu ditudalako. Toure pertsonaiaren kasuan, afrikar baten buruan sartu behar da, lehenengo pertsonan kontatuta dagoelako saga. Hori ausartu naiz egiten, ni afrikarra izan gabe.

Irakurlearentzat erraza da Toureren tokian jartzea. Etorkin askorentzat Euskal Herria aukeren herria da, baina gero askotan labirinto ere bihurtzen da. Euskal gizartea horretaz jabetzen da? Batzuk badira kontziente. San Frantziskon, sekulako mugimendu soziala dago horrelako jende-ari laguntzen. Jende miresgarri mordo dago. GKE eta antzeko asko dago lanean. Oso kontziente da jendea. Gero, kanpokoei, auzoa ezagutzen ez dutenei esplikatu behar zaie zer gertatzen den, nolakoa den auzoa... Baina ez da erraza. Orain, krisi ekonomikoaren garaian, batez ere, geurekoia-koak bilakatu gara iruditzen zait. Atzeritarren aurkako mezuak oso gaiztoak dira; batez ere, oso azkar hedatzen direlako gure gizartean.

Horrek ezberdinen arteko elkarbizitza zailtzen du?

Bai. San Frantzisko barruan akaso ez hainbeste. Errealitate hori

«Saltzen naiz imajinatzen deskribatzen ditudan toki horietako pertsonak irakurtzen nautela»

«Atzeritarren aurkako mezuak oso gaiztoak dira; batez ere, oso azkar hedatzen direlako gure inguruan»

«Azken urteetan nobela beltzak duen arrakasta xanpainaren aiparraren antzeko zerbait da»

benetan ezagutzen ez dutenen artean bai zabaltzen direla halako topikoak. Zuk jendeari galdetzen dizu, eta ziur baietz esaten duela, inpresio hori duela: atzeritar-rrak laguntza bila datozela, eurek hartzen dutela laguntza gehien, eta gainera ez dutela lanik egiten. Hitzpide hori oso hedatua dago.

Pentsatua duzu laster bidaiariek egitea?

Ez. Joan den urtean egin nuen egonaldia bat Etiopian. Ez ditut inoiz bidaiak planifikatzen. Batean etortzen zaidanean ideien artean, bat gauzatu egiten dut nire aukeren barruan. Ez da lehen bezala, sudur puntan ipintzen zitzaizdana egiten nuela. Orain ez da hain erraza, familia daukat. Hala ere, zorionez, nahiko soka luzea daukat, eta uzten didate gutxi gorabehera nahi dudana egiten.

Liburuak euskaraz eta gaztelaniaz publikatzen dituzu. Zer dela-eta hartu zenuen erabaki hori?

Nik libururik beti euskaraz idatzi ditut. Azken urte hauetan, idazteki bakarrik bizi naiz; hau da, liburu-aren salmentetatik. Idazleok

hori bakarrik kobratzen dugu, ez dugu besterik kobratzen. Euskaraz bai nahiko ondo saltzen dut, baina zenbat eta hizkuntza gehiagotan publikatu, orduan eta hobe. Erein argitaletxearekin lanean hasi nintzenean, esan zidaten, nahi izanez gero, aldi berean bi hizkuntzetan ateratzeko aukera zegoela inolako problemarik gabe. Niretzat interesgarria da euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzea. Orain ari naiz ahaleginak egiten atzerriko beste hizkuntza batzuetan ere argitaratzeko. Due-la gutxi hartu dut Kataluniako agente bat, agentzia indartsua duena, eta ahaleginak egiten ari da Frankfurt eta Londresko azoketan nire libururik ondo kokatuta frantsesera, ingelesera edota alemanera itzultzeko.

Kanpora begira jartzeak zer ekarpen egin dizu?

Mundua ezagutzeko modu bat izan da. Afrika bezala, Espainia ere ezagutu behar da. Euskaldu-

nok denok ezagutzen dugu elkar, eta gure pentsaera daukagu. Edozein gauza esan dezakezu gutxi gorabehera lasai. Kanpora zoazenean, kontuz ibili behar da esaten duzunarekin jendea ez mintzeko. Aurreko asteburuan, Madrilin egon nintzen *Estolda jolasak* aurkezten. Aurrerago, Cuenca, Tenerife eta Tolledora joango naiz.

Nobela beltzaren panorama nola ikusten duzu?

Nire ustez, guztien artean fabrikatutako gezurrezko arrakasta da nobela beltzarena. Orain, genero-ari buruzko azokak daude toki guztietan. Gero, kontraturten zara azoka guztietan jende bertsua dagoela. Nobela beltzean espezializatutako liburu saltzaileei galdetu, eta esaten dute ez dela ezer ere saltzen. Esaterako, lehen Negra y Criminal liburu denda zegoen Bartzelonan. Generoan espezializatutako denda garrantzitsuenaz zen, eta, iaz, itxi egin zuten. Beste bat dago Madrilin *Burma* izena duena. Umeentzako libururik jarri behar izan dituzte bizirik irauteko. Galdetu eta aitortzen dute askoz ere gehiago saltzen dituzte- la umeen libururik nobela beltzak baino. Horregatik diot gezurrezko arrakasta dela. Orain, kristo guztiak idazten du nobela beltza. Denetarik dago: batzuk oso onak, besteak oso txarrak, tartekoak... Niri, nobela beltza idazteaz gain, irakurtzea ere gustatzen zait. Hala ere, azken urteetan nobela beltzak duen arrakasta xanpainaren aiparraren antzeko zerbait da.



Katixa Agirre idazlea, iazko maiatzean. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Katixa Agirreraren 'Atertu arte itxaron' eleberria sarituko du 111 Akademiak

2015eko euskarazko liburuen artean aukeratu dute akademiako kideek • Saizarbitoriaren 'Lili eta biok' lanarekin lehiatu da azken fasean

Ander Perez

Euskal Literaturazaleen 111 Akademiak, urtarril partean, iazko euskarazko libururik gustukoena aukeratu zezatela eskatu zien berro osatzen duten 197 kideei. Urteroko prozedura da, 1997. urtean *Beterriko Liburua* izeneko saria sortu zutenetik. Akademiakideek hiru hilabete eta hiru bozketatan behar izan dituzte erabakia hartzeko, baina, azkenean, ebatzi dute saria: 2015ean Katixa Agirreraren *Atertu arte itxaron* (Elkar) eleberria izan zen euskarazko obrarik azpimarragarriena. Maiatzaren 5ean emango diote saria Agirrerri, Andoaingo (Gipuzkoa) Bastero kulturagunean egingo duten ekitaldian.

Hiru fase izan ditu iazko euskarazko libururik «gogokoena» hautatzeko bideak. Otsaila bukatu bitartean, 2015ean kaleratutako liburuen artean bat aukeratzeko epea izan zuten akademiako kideek. Orotara, 83k eman zuten boza, aurreko urteetan baino gutxiagok. Horiek guztiak proposatutako lanen artean, gehien bozkatutako bostak igaro ziren hurrengo fasera: Imanol Murua Uriaren *Ekarri armak*, Jon Alonsoren *Hiri hondakin solidok*, Jo-

xemari Iturruleren *Perlak, kolpeak, muxuak, traizioak*, Ramon Saizarbitoriaren *Lili eta biok* eta Katixa Agirreraren *Atertu arte itxaron*. Bigarren txandan, Saizarbitoriaren eleberria izan zen gehien bozkatutako lana, baina ez zuen botoen %40ko langa gainditu. Hortaz, hirugarren fasera pasatu zuten, boto gehien zutenetako bigarrenarekin, alegia, Agirreraren nobelarekin lehiatuz. Azken hori izan da gehien bozkatua, akademiako kideek egindako hirugarren eta azken bozketan. Irakurle eta literaturazaleek osatzen dute 111 Akademia. Saria emateko prozeduraren bitartez, diotenez, «akademiakideen irakurketa suspertzea» lortzen dute.

Bide bat, gatazkak gatazka

Road movie gisara idatzitako eleberria da Agirrerena. Bikote batek Euskal Herrian zehar egindako bidaia kontatzen du lanak, baina, autorearen esanetan, aitzakia da ibilbidea, helburua bainoago. Ustez lasaia beharko lukeen bidaia horretan, ordea, gatazkak gatazkak dira, bata besteari atzetik. Euskal gatazka bai, baina, zehatzago, gatazkaren aurpegi eta alor ezberdinak jaso ditu Agirrek bere lehen eleberrian.